


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

1. Baliabide fisikoak:

Gure proiektuak funtziona dezan, baliabide fisiko garrantzitsuena gailu elektronikoak dira. Bezeroekin harremanetan egoteko eta lanerako beharrezkoak ditugulako. Kostu egiturari adierazi dugun bezala, 5 ordenagailu erosiak ditugu (taldeko bakoitzarentzat bat). Erabiliko ditugun programei dagokienez, guztiak kostu gabekoak dira. Bestalde lokal bat izatea ere komenigarria izango litzateke baina gure etxetik has gaitezke, lanerako materiala sarean egongo baita. Honen gastuak ere kostu egiturari azaltzen ditugu.



2. Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:

Beharrezkoa izango da streamer eta bideo jokoetako jokalarien inguruko informazio guztia jakitea, mundu horretan eguneratua egoteko eta guk azkarrago lan egiteko. Marketin eta errepresentazioaren inguruan ere informazioa jakin beharko dugu baita legalki egin dezakegun eta ezin dezakegunaren inguruan. Kontabilitatean ere jarrita egon behar dugu baina klasean ikasitakoarekin aurrera egin dezakegu.

3. Finantza-baliabideak:

Taldekide bakoitzak 2000 euro jarriko ditu enpresaren lehenengo urratsak errazteko enpresak aurrera egin dezan. Beste enpresaren batekin kolaboratuz gero, beraiek ere ekarpen bat egin dezakete.

